

IRAUNKORTASUNAREN ETA INGURUMENAREN ALDEKO KONPROMISOA

Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola UPV/EHUren Arabako Campuseko ikastegia da. Gasteizen eta Araban erreferentziazko erakundea da unibertsitateko irakaskuntza eta ikerketa arloan, eta harreman estua du haren eremuko enprekin, eta horrelaxe lortzen du emandako prestakuntza eta egin beharreko ikerketa enpresen beharretara egokitu daitezen.

Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola UPV/EHUko ikastegi liderretako bat da Kalitate eta Ingurumen programak garatu eta ezartzeari buruzko alderdietan. Horren emaitza dira EFQM ereduan 2006ko Zilarrezko Q ziurtagiria, 2005etik lortu eta mantendu duen EKOSCAN ziurtagiria eta 2017an erdietsitako Kudeaketa Aurreratuko Ereduaren arabarako Zilarrezko A ziurtagiria (EUSKALIT) eta Audit (UNIBASQ) delakoa.

Garapen Iraunkorraren inguruan interesa duten kolektiboen arteko lankidetzara bultzatu nahi du Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolak.

- Iraunkortasunaren eta ingurumenaren arloko berrikuntzari buruzko deialdietan parte hartzea sustatuz, betiere EHUAgenda2030 programaren helburuak gogoan izanik.
- Kontrolean oinarritutako kutsadura prebenituz eta eskolak eragindako ingurumenarekiko kalteari dagozkion alderdiak pixkanaka murriztuz.
- Indarrean dagoen ingurumen legeriara egokituz eta iraunkortasunaren arloko talde instituzionaletan parte hartuz.
- Gure jarduerari lotutako ingurumen alderdiak identifikatuz eta baloratzuz, bai curriculumean, bai curriculumetik kanpo.
- Energiaren eraginkortasuna, kontsumo arduratsua, hondakinen kontrola eta abar sustatzen dituzten neurriak txertatuz.
- Gure ikasleen artean ingeniartzaren esparruan etorkizunean egingo duten jardueraren eta ingurumenarekiko eta iraunkortasunarekiko konpromisoaren eta sentsibilizazioaren arteko lotura sustatuz.

Konpromisoa hartzen dugu, prestakuntzaren eta ikerketaren bidez, gure jarduerari lotutako ingurumen alderdiak aitortu eta baloratzeko, eta iraunkortasuna, kontsumo arduratsua eta gizartearekiko konpromisoa hobetuko dituzten neurriak hartzeko.

Gasteizen, 2022ko urtarrilaren 18an

Sin.: Zuriñe Gómez de Balugera

Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako zuzendaria